

Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne ebaluazioa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

I.2. IDAZMENA ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Ebaluazio-irizpideen azalpena.

Idazmena ebaluatzeko irizpideak hiru bloketan antolatu dira:

- Komunikazio-egoerara egokitzea (Gaitasun Soziolinguistikoa)
- Koherentzia eta kohesioa (Gaitasun Diskurtsiboa)
- Morfosintaxia, lexikoa eta ortografia (Gaitasun Linguistikoa)

I. Komunikazio-egoerara egokitzea. Gaitasun Soziolinguistikoa.

Egokitasun ezaugarriaren bidez testua komunikazio-egoerarekin eta testuinguruarekin lotzen da. Hala, testuak komunikazio-egoeraren parametroak islatzen ditu: idazlearen jarrera, komunikazio-asmoa, ekoizpen- eta harrera-kanala... eta horiek testuari dagozkion hizkuntza-erregistroaren ezaugarriak markatzen dituzte. Halaber, testua komunikazio-egoerak eskatutako gaiari lotzen zaio.

Hauk dira **egokitasunarekin** zerikusia duten adierazleak:

- **Helburua.** Ea atazan proposatutakoa errespetatzen den ala ez: deskribatzea, kontatzea, azaltzea, argudiatzea.... eta ea emandako agindua betetzen den (narrazioa idatzi, albistea, gutuna, errezeta...).
- **Gaiarekiko lotura.** Ea informazioa esanguratsua den emandako komunikazio egoerari erreparaturik eta ea ikasleek ekoitzi behar duten testu-generorako egokia den. Ea proposatutako komunikazio-egoera kontuan izanik, informazioaren kantitatea nahikoa den eta kalitateari begira esanguratsua den.
- **Hizkuntza-erregistroa.** Ea erabilitako hizkuntza-erregistroa (formala, ez-formala...) ondo egokitzen zaion proposatutako hizkuntza atazari.
- **Testu-generoari dagozkion beste zenbait adierazle:** objektibotasuna/ subjektibotasuna, erreferenteari eustea, hartzaileren inplikazioa eta abar. Ezaugarri hauek balioetsiko dira, betiere, eskatutako testuan esanguratsuak badira.

2. Koherentzia eta kohesioa. Gaitasun diskurtsiboa.

Koherentzia ezaugarriaren bidez, testua, oro har, zentzu-unitate gisa antolatzen da. Informazioaren aukeraketan eta horren antolaketan egitura jakin bat ikusten da. **Kohesioa** ezaugarriak biltzen ditu testuko informazioaren arteko loturak ahalbidetzen dituzten hizkuntza-mekanismoak. Mekanismo horiek, batez ere, bi motakoak dira: morfosintaktikoak eta lexikoak.

Hauek dira **koherentziarekin eta kohesioarekin** lotutako adierazleak:

- **Informazioaren garapena eta koherentzia.** Ea informazioa modu esanguratsuan aukeratzen den, eta ea ez dagoen kontraesanik, alferrikako errepikapenik, betelanik... eta ideiak eta datuak modu logikoan garatzen diren.
- **Testu-egitura.** Ea eskatutako testuaren egitura errespetatzen den: narrazioa, deskripzioa...
- **Kohesio-mekanismoak.** Ea testuko atalak ongi lotzen diren, testu lokailu eta antolatzaile egokien bidez, erreferentea galdu gabe, gaiaren garapena bermatuz.

3. Morfosintaxia, lexikoa eta ortografia. Gaitasun Linguistikoa.

Gaitasun Linguistikoa propietatearen bidez testua arau gramatikaletara egokitzen da. Arau morfosintaktikoen eta ortografikoen erabilera zuzena eta lexiko egokiaren erabilera dira irizpide nagusiak.

Hauek dira adierazleak:

- **Morfosintaxia.** Ea egitura morfosintaktiko zuzenak eta askotarikoak erabiltzen diren.
- **Lexikoa.** Ea erabiltzen den lexikoa eskatutako gaiari ondo egokitzen zaion.
- **Ortografia eta puntuazioa.** Ea hizkuntzaren oinarritzko ortografia eta puntuazio arauak errespetatzen diren.

ARAU ORIENTAGARRIAK

GAITASUN LINGUISTIKOA : GRAMATIKA, ORTOGRAFIA, PUNTUAZIOA

Akatsen balorazioa gramatika arloan

Datozen akatsak oinarrizkoak dira, hortaz, sistematikoki errepikatzen badira, akatsa larria da:

- Ergatiboa gaizki erabiltzea: “Ni esango dizut”, “Nik hasi naiz lanean”...
- Aditzaren komunztadura ez errespetatzea: “Gizonak ikusi dut”, “Liburu batzuk erosi zuen”.
- Denbora-nahasketa handiak: “Etorriko bazina etxera joango gara”, “Joango behar du”.
- Ordena oso gaizki jartzea: “Ez nahi du etorri”, “Daukat etxe bat mendian”, “Alokatzeko baserria da gehiegi”.
- ...

Errakuntza morfosintaktiko bakan batzuk onargarriak badira ere, akats larriak sistematikoki egiten baditu, edo, sistematikoki izan gabe, zenbait puntutan behin eta berriz huts egiten badu, 2, 1 edo 0 mailetan kokatuko da idazlana.

Akatsen balorazioa ortografia arloan

Ikasleek idazlanetan egiten dituzten akatsak era askotakoak izaten dira: batzuk munta handikoak edo “larriak” eta beste batzuk ez hain larriak edo garrantzi gutxiagokoak. Arinak ez dira kontuan izango (esaterako, teknizismo bat gaizki idaztea...)

Oinarrizko arau ortografiko eta maiztasun handiko hitzetan egiten direnak akats larritzat hartuko dira. Maiztasun urriko hitzetan edo egitura sintaktiko konplexuago edo bitxiagoetan egiten direnak ez dira normalean hain garrantzitsuak.

Ondokoan, idazmenean behinik behin larritzat jotzen diren hainbat akats ematen dira, adibide gisa:

- Erabilera handiko hitzetan egiten diren akatsak larriak dira beti, hala nola, aditz laguntzaile formetan S agertzea (“nais”...), tx, ts, tz duten hitz ezagunak gaizki idaztea (“etzea”...)
- Aldiz, beste zenbait huts, txikitat joko dira: erabilera urriko hitzen ortografia (“h”ak bereziki) edota gaztelaniak eragindako akatsak (m, p aurretik, v...)
- Letra larrien erabilera okerra.
- ...

Akatsak urriak eta ez larriak direnean 5, 4 edo 3 mailetan koka daiteke idazlana. Kontuan izan akats berbera bakartzat kontatuko dela.

Akatsen balorazioa puntuazioan

Gutxienez, marka hauek agertu beharko lukete:

- Paragrafoen amaieran puntua, baita ideia bat duen esaldi baten amaieran.
- Harridura eta galdera ikurra edo zeinua ipini behar dira, behar direnean.
- Koma, ohiko erabilpenean jarri behar da: zerrendetan, kontaktaren haria eteten denean, aposizioetan...
- Erabiltzen direnean, ondo erabiltzea: komatxoak, parentesiak eta gidoiak.

Kontuan eduki, akatsak oso ugariak ez direnean, 3. mailan ahal dela kokatu.

IDAZMEN PROBAREN EMAITZAK ERREGISTRATZEKO TXANTILOIA

IKASLEA: _____

DATA: _____

ADIERAZLEAK	0	1	2	3	4	5
1. KOMUNIKAZIO-EGOERARA EGOKITZEA (Gaitasun Soziolinguistikoa)						
- Testuaren helburua / Gaiarekiko lotura - Hizkuntza-erregistroa - Beste zenbait adierazle						
2. KOHERENTZIA ETA KOHESIOA (Gaitasun Diskurtsiboa)						
- Informazioaren progresioa eta koherentzia - Testuaren egitura - Testu antolatzaileak eta lokailuak						
3. MORFOSINTAXIA, LEXIKOA, ORTOGRAFIA (Gaitasun Linguistikoa)						
- Morfosintaxia - Lexikoa - Ortografia						
	HASIERAKO MAILA			ERDI-MAILA	MAILA AURRERATUA	


HONA HEMEN IKASLEEI PROPOSATUKO ZAIEN IDAZMEN PROBA

ISTORIAO ASMATU ETA IDATZI

Irudi hauetako **bat aukeratu** eta bertan kokatu zure istorioa.



Itsasoan



Mendian



Hiri handian

Kontuan izan **istorio bat** idatzi behar duzula.

Honelako erabakiak hartu behar dituzu:

- **Noiz** gertatzen den.
- **Nortzuk** diren pertsonaiak.
- **Zer** gertatzen zaien.

Zure istorioak **hiru atal** izan behar ditu:

1. hasiera
2. korapiloa
3. amaiera.


Idatzi **50 hitz** gutxienez.

20 minutu dituzu testua idazteko.

NARRAZIOA: IRUDIA AUKERATU, ISTORIOA ASMATU ETA IDATZI

	0	1	2	3	4	5
KOMUNIKAZIO-EGOERARA EGOKITZEA (Gaitasun Soziolinguistikoa)		<p>Testuaren helburua / Gaiarekiko lotura</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleak ez du ondo ulertu edo ez du betetzen eskatutakoa. - Helburua ez da betetzen: narrazio bat izan liteke, baina ezin da ondorioztatu zertaz hitz egiten duen. Bestela, beste testu mota bat da. - Oso datu gutxi ageri dira eta soilik aipatu egiten dira. <p>Hizkuntza-erregistroa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lagunen arteko diskurtsoa ageri da eta erregistroak nahastuta. <p>Pertsona</p> <ul style="list-style-type: none"> - Narratzailearen pertsonak nahasten dira eta ulermena eragozten da. 	<p>Testuaren helburua / Gaiarekiko lotura</p> <ul style="list-style-type: none"> - Testuaren helburua nekez betetzen da: NARRAZIO bat izan daiteke, baina ez du irudia aukeratu, edo ezin da ondorioztatu nortzuk diren pertsonaiak. - Beharrezko datuak ahal dira agertu, baina garatu gabe, zerrenda edo esaldi bakar baten bidez aipatuta baino ez. <p>Hizkuntza-erregistroa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ahozko zein idatzizko erregistroak nahasirik ageri dira. Ez dio eusten hizkuntza estandarren erregistroari. <p>Pertsonaren erabilera</p> <ul style="list-style-type: none"> - 1. eta 3. pertonekin batera, besteren bat ager daiteke ez oso egoki sartuta. 	<p>Testuaren helburua / Gaiarekiko lotura</p> <ul style="list-style-type: none"> - Helburua betetzen da: ISTORIO bat da, emandako irudiren bat abiapuntutat hartuta. - Proposatutako irudi edo gairen bat agertzen da apur bat garatuta (ez da zerrenda huts bat): noiz eta nori gertatutakoa garatzen da. <p>Hizkuntza-erregistroa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza estandarra ageri da, hizkuntza idatzari lotutakoa. Hala ere, ahozko hizkuntzari lotutako ezaugarriren bat edo beste ageri da batzuetan. <p>Pertsonaren erabilera</p> <ul style="list-style-type: none"> - Narratzailearen pertsona mantentzen da (normalean 1. edo 3. pertsona). Beste batzuk ahal dira erabili, ulermena eragozten ez bada. 	<p>Testuaren helburua / Gaiarekiko lotura</p> <ul style="list-style-type: none"> - Testuaren helburua ondo betetzen da: ISTORIO bat da, istorio bat ondo kokatua eta pertsonaiak definituta. - Proposatutako irudiren bat aukeratu da eta horren inguruko istorioa garatu da: pertsonaiak, noiz eta zer gertatutakoa, eta agian, datu gehiago. <p>Hizkuntza-erregistroa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erregistroa formala da, idatzizko hizkuntzakoa. Ez du ahozko hizkuntzari lotutako ezaugarriak. <p>Pertsonaren erabilera</p> <ul style="list-style-type: none"> - Normalean 1. edo 3. pertsona izango da, baina beste pertsona batzuk ager daitezke (egoki sarturik). 	<p>Testuaren helburua / Gaiarekiko lotura</p> <ul style="list-style-type: none"> - Testuaren helburua guztiz betetzen da: ISTORIO bat da (egoki kokatua eta erabakiak ondo hartuta: pertsonaiei gertatutako zerbait buruz). - Proposatutako irudi bat argi aukeratu da eta horren inguruko istorioa ondo garatu da: gertakizuna, asmatutako datu edo egoera gehiagoarekin. <p>Hizkuntza-erregistroa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erregistro nahiko formala. Ahozko zein lagunen arteko adierazpenik ez dago. <p>Pertsonaren erabilera</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez daude aldatetako pertsona narratiboan, 1. edo 3. pertsona izango da oro har. Pertsonen aldatetako eginez gero, logikoak dira.
KOHERENTZIA ETA KOHESIOA (Gaitasun Diskurtsiboa)		<p>Informazioaren progresioa eta koherentzia</p> <ul style="list-style-type: none"> - Datuak ez daude antolatuta. - Testua inkoherentea da. - Ideiak errepikatzen dira edo ideia gutxi daude. - Informazioa urria da, edo oso era traketsan dago sarturik. <p>Testuaren egitura</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dira agertzen narrazioaren atalak. - Beste testu-genero bat da. - Ez dago inongo egiturarik. - Nekez uler daiteke nori eta zer gertatu zen. <p>Testu-antolatzaileak eta lokailuak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dago oinarritzko antolatzailearik edo lokailurik edo gaizki erabilita daude. 	<p>Informazioaren progresioa eta koherentzia</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ideiak eta datuak ez daude oso era logikoan antolatuta. Inkoherentziak agertzen dira. - Ideiak errepikatzen dira edo ideia gutxi daude. Informazio berria urria da edo era traketsan dago sarturik. <p>Testuaren egitura</p> <ul style="list-style-type: none"> - Testua ez dago modu kronologikoan idatzita. <p>Testuaren egitura</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dira antzematen narrazioaren atalak (hasiera, garapena eta amaiera). - Zer gertatu zen eta nori ez da guztiz ulertzen. <p>Testu-antolatzaileak eta lokailuak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lokailuren bat ager daiteke, baina ez dira nahikoak edo gaizki erabilita daude. 	<p>Informazioaren progresioa eta koherentzia</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ideiak eta datuak era logiko samarrean antolatuta daude. Ez dago inkoherentzia larririk; ideiak nahiko pertinetek dira. - Ideiak ez dira ia errepikatzen; informazio berria agertzen da. - Modu kronologikoan idatzia (denboran saltoren bat ager daiteke) <p>Testuaren egitura</p> <ul style="list-style-type: none"> - Narrazioaren egitura nabaria da; hasiera eta bukaera behintzat agertzen dira, nahiz eta laburrak izan. - Noiz, nortzuk eta zer agertzen dira. <p>Testu-antolatzaileak eta lokailuak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oinarritzko testu-antolatzaile edo lokailuren bat agertzen da. 	<p>Informazioaren progresioa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ideiak eta datuak ondo antolatuta daude eta egoki azalduta. Koherentzia badago eta ideiak dagozkionak dira. - Ideiak ez dira errepikatzen, informazio berria agertzen da eta ondo ordenatuta (logikoki, kronologikoki...). <p>Testuaren egitura</p> <ul style="list-style-type: none"> - Narrazioaren atalak argi ageri dira, nahiz eta baten bat garbi ez nabaritu. - Ideiak sailkatuta daude gutxi gorabehera (hasierakoa, bukaerakoa eta garapena). - Argi agertzen da: noiz, zer eta pertsonaiak. <p>Testu-antolatzaileak eta lokailuak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oinarritzko testu-antolatzaile eta lokailuak agertzen dira. - Aurkezteko (<i>bazen behin...</i>) eta amaitzeko (<i>azkenean...</i>) formulak ager daitezke. 	<p>Informazioaren progresioa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ideiak era logikoan antolatuta daude eta argi azalduta. Koherentzia badago narrazioaren datuen ordenan. - Ideiak ez dira errepikatzen, informazio berria agertzen da eta ondo antolatuta. - Modu guztiz kronologikoan idatzia. <p>Testuaren egitura</p> <ul style="list-style-type: none"> - Narrazioaren atal guztiak agertzen dira: aurkezpena, garapena eta amaiera. Izenburua ere ipini du. - Ideiak paragrafoetan sailkatuta egon daitezke. - Agertzen da: zer gertatu zen, noiz, nori eta nola bukatu zen. <p>Testu-antolatzaileak eta lokailuak</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oinarritzko testu-antolatzaileak eta lokailuak ditu. Adibidez, aurkeztekoak (<i>behin batean, aspaldian...</i>) eta amaitzekoak (<i>ondoren, azkenean...</i>).
MORFOSINTAXIA LEXIKOA, ORTOGRAFIA (Gaitasun Linguistikoa)		<p>Morfosintaxia</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oinarritzko akats ugari. Testua ez da ulertzen. - Esaldiak gaizki osaturik. - Perpaus bakunak ageri dira edo lotu gabeak. <p>Lexikoa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez da egokia. Erdarakadak agertzen dira. - Oro har, hitzak errepikatzen dira edo oso hitz gutxi dago. <p>Ortografia eta puntuazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oinarritzko akats asko. - Ez du maiuskularik erabiltzen. - Ez du puntu ondo erabiltzen. - Hitzak, batzuetan, elkarturik. 	<p>Morfosintaxia</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oinarritzko akatsak ageri dira, hala ere testua ulergarria da. - Esaldi batzuk ez dira ondo osatu. - Batez ere perpaus bakunak ageri dira. - Perpaus elkartu errazen batzuk ager daitezke (eta, baina...). Baina horrelakoetan akatsak antzematen dira. <p>Lexikoa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez da oso egokia, pobre samarra da. - Hitzak errepikatzen dira. <p>Ortografia eta puntuazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oinarritzko akatsen bat agertzen da. - Maiuskulak erabiltzen dituen arren, batzuetan akatsak egiten ditu. - Puntua batzuetan gaizki erabiltzen du. - Hitzak banatzen ditu gehienetan. 	<p>Morfosintaxia</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dago oinarritzko akats askorik edo ulergarritasuna eragozten duenik. - Esaldiak nahiko ondo osatuta daude (ordena, osagarriak...). - Perpaus elkarturen bat edo beste ageri da. <p>Lexikoa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Lexikoa egokia da. - Hitzak ez dira gehiegi errepikatzen (nahiz eta errepikapenen bat egon). <p>Ortografia eta puntuazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dago oinarritzko akats askorik edo ulergarritasuna eragozten duenik. - Maiuskulak erabiltzen ditu. - Puntua modu egokian erabiltzen du. - Hitzak banatzen ditu. 	<p>Morfosintaxia</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oinarritzko akats morfosintaktiko gutxi dago. - Ondo osatzen dira esaldiak. - Perpaus elkartuak eta menpeko sinpleenak, erabilienak ageri dira. <p>Lexikoa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Hitzegia oso egokia da. - Oro har, hitzak ez dira errepikatzen. - Lagunen arteko hizkera ez du erabiltzen. <p>Ortografia eta puntuazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dago akats handiegirik oinarritzko ortografia edo puntuazioari dagokienez. - Ortografia ondo erabiltzen ditu. - Puntua modu egokian erabiltzen du. 	<p>Morfosintaxia</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dago akats morfosintaktikorik. - Esaldiak oso ondo osatuta daude (ordena, osagarriak...). - Perpaus elkartuak eta menpeko errazek ongi erabilita ageri dira. <p>Lexikoa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oso egokia da eta aberatsa izan daiteke. - Sinonimoak ageri dira. <p>Ortografia eta puntuazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> - Oinarritzko ortografia edo puntuazio arauak ondo erabiltzen ditu. - Maiuskulak ondo erabiltzen ditu. - Puntua eta bi puntuak modu egokian erabiltzen ditu.

10 hitz edo gutxiago dituen testua.
Zentzurik gabeko testua da edo dituen ezaugarriengatik ezin da baloratu.



Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne ebaluazioa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

CRITERIOS DE CORRECCIÓN PARA LA PRUEBA DE EXPRESIÓN ESCRITA

Descripción general de los criterios.

Los criterios de evaluación de la expresión escrita se han organizado en los bloques siguientes:

- Competencia sociolingüística o adecuación.
- Competencia discursiva, o coherencia y cohesión.
- Competencia lingüística, que hace referencia al léxico, la gramática y la ortografía.

Criterios de corrección:

1. Competencia sociolingüística o adecuación.

La adecuación es la propiedad por la que el texto se ajusta a la situación de comunicación planteada y al contexto discursivo. El texto refleja las características de esa situación comunicativa en la que se desarrolla: la intención comunicativa, la actitud de los interlocutores, el canal de producción y recepción, etc. Además, señala las peculiaridades lingüísticas referidas al registro utilizado y hace referencia a si el texto se adapta con pertinencia al tema en la situación comunicativa determinada.

Los indicadores de la competencia sociolingüística son los siguientes:

- **Objetivo del texto:** observar si se respeta la finalidad de la tarea (narrar, describir, elaborar, argumentar...) y si se logra realizar la consigna estipulada en el ítem (elaborar una receta, redactar una narración, una carta, etc.)
- **Registro lingüístico:** se refiere a si la variedad lingüística utilizada es adecuada a la tarea (formal o informal).
- **Otros indicadores que se relacionan con el género textual y que se evalúan en los casos en que sea pertinente:** mantenimiento de la persona verbal, objetividad / subjetividad en el desarrollo del tema, mantenimiento del referente, implicación hacia el receptor...

2. Competencia discursiva: coherencia y cohesión.

La **coherencia** es la propiedad por la cual un texto se organiza globalmente como una unidad de sentido. Se tendrá en cuenta la selección de la información, así como el desarrollo de la misma y su organización en la estructura que corresponda al género tratado.

La **cohesión** engloba los mecanismos lingüísticos que permiten establecer relaciones entre la información del texto, a través de sus enunciados. Estos mecanismos son de dos tipos: gramaticales (o morfosintácticos) y léxicos.

Los indicadores de la competencia discursiva son los siguientes:

- **Progresión y coherencia de la información:** si la selección de la información es adecuada y nueva, si dicha información avanza sin contradicciones o repeticiones innecesarias, etc. Y si las ideas y los datos se desarrollan de forma lógica.
- **Estructura textual:** debe respetarse la estructura textual del texto solicitado, ya sea una narración, una exposición, etc.
- **Mecanismos de cohesión:** si aparecen los conectores y los organizadores textuales necesarios para elaborar un texto cohesionado, sin perder el referente y de modo que se asegure la progresión temática.

3. Competencia lingüística: léxico, gramática y ortografía.

Mediante esta competencia se comprueba si el texto se ajusta a la normativa lingüística. Se solicita la utilización correcta de las reglas ortográficas, morfosintácticas y un uso apropiado del léxico.

Los indicadores de la competencia lingüística son los siguientes:

- **Gramática:** si se utilizan estructuras gramaticales y morfosintácticas correctas y variadas.
- **Léxico:** la utilización de un léxico ajustado al tema solicitado.
- **Ortografía:** si se respetan las normas ortográficas básicas.

PAUTAS ORIENTATIVAS PARA LA CORRECCIÓN ORTOGRÁFICA

Las normas ortográficas afectan directamente a la escritura. Estos criterios se tienen en cuenta considerando que con frecuencia aparecerán algunos errores gramaticales.

Teniendo en cuenta la edad del alumnado nos fijaremos en la ortografía de las palabras más habituales.

GRAMÁTICA, ORTOGRAFÍA Y PUNTUACIÓN

- + Adecuada ortografía de las palabras aunque con algunos fallos básicos (ll, y, g-j, s-c, b-v, h, c-z-q...) en palabras de uso común.
- + M antes de p y b (con errores ya que están en una enseñanza bilingüe)
- + Uso de la B: En las palabras más habituales, como las que empiezan por bu, bur y bus.
- + Utilización de letras mayúsculas al comienzo del texto, después de cada punto y en los nombres propios.
- + Respeto y uso adecuado de la persona verbal.
- + La mayoría de las oraciones siguen el orden adecuado.
- + Separación de palabras y de renglones.
- + Uso generalizado del punto (.) al final de la frase y del párrafo.
- + Uso de las comillas, paréntesis y guiones.
- + Aparición de algún otro signo de puntuación cuando sea necesario: coma (en enumeraciones, en las aposiciones), admiración, exclamación...

VOCABULARIO

Aparecen, aunque con algún error, palabras de uso corriente que no están sujetas a ninguna norma especial pero que están relacionadas con el vocabulario usual: las partes del cuerpo, colores, números, animales y plantas corrientes, etc.

En general, aunque puedan existir varios errores gramaticales y repeticiones de palabras, son admisibles en el nivel medio teniendo en cuenta la edad del alumnado.

PLANTILLA PARA EL REGISTRO DE LA PRUEBA DE EXPRESIÓN ESCRITA

IKASLEA/ ALUMNO/A: _____

DATA/ FECHA: _____

DESCRPTORES	0	1	2	3	4	5
1. COMPETENCIA SOCIOLINGÜÍSTICA O ADECUACIÓN						
<ul style="list-style-type: none"> - Objetivo del texto. Pertinencia del tema. - Registro lingüístico utilizado. - Otros indicadores. 						
2. COMPETENCIA DISCURSIVA: COHERENCIA Y COHESIÓN						
<ul style="list-style-type: none"> - Progreso y coherencia de la información. - Estructura del cuento. - Uso de organizadores textuales. 						
3 COMPETENCIA LINGÜÍSTICA: LÉXICO, GRAMÁTICA Y ORTOGRAFÍA						
<ul style="list-style-type: none"> - Morfosintaxis. - Léxico. - Ortografía y puntuación. 						
	NIVEL INICIAL			NIVEL MEDIO	NIVEL AVANZADO	

A CONTINUACIÓN SE PRESENTA EL EJEMPLO DE PRUEBA MODELO

CUENTO FANTÁSTICO

INVENTA UNA HISTORIA QUE SEA MUY ESPECIAL

Trata de imaginar que eres el niño de la imagen y que estás leyendo un cuento.

De repente, los muñecos de tu habitación toman vida y comienzan a saltar y bailar, el cohete se dispara, la bola del mundo empieza a dar vueltas... ¿Qué está pasando? Cuéntanos cómo sigue esta historia.

Debes incluir estos datos:

- el título;
- qué ha ocurrido;
- cómo ha sucedido;
- qué ha pasado después;
- cómo ha terminado.




- Cuida la ortografía.
- No olvides volver a leer tu texto.
- Escribe, al menos, **50 - 60 palabras**.
- Tienes **20 minutos** para completar esta prueba.

NARRACIÓN DE UN CUENTO FANTÁSTICO

	0	1	2	3	4	5
ADECUACIÓN A LA SITUACIÓN DE COMUNICACIÓN COMPETENCIA SOCIOLINGÜÍSTICA		<p>Objetivo del texto. Pertinencia con respecto al tema</p> <ul style="list-style-type: none"> -El texto no informa sobre lo ocurrido y no se ha cumplido el objetivo. -No hay un título. -Información insuficiente confusa e irrelevante. -Texto muy básico que no está adaptado a la situación comunicativa ni a la finalidad del cuento. <p>Registro lingüístico utilizado</p> <ul style="list-style-type: none"> -Uso de un discurso coloquial o inadecuado. -Mezcla de registros: lengua escrita/oral. -Presencia de vulgarismos. <p>Mantenimiento de la persona verbal</p> <ul style="list-style-type: none"> -Existencia de distintas personas narrativas que hacen confuso el texto. 	<p>Objetivo del texto. Pertinencia con respecto al tema</p> <ul style="list-style-type: none"> -El texto no es un cuento o puede ser una narración, pero no se puede concluir qué ocurre y cómo ocurre. -El título está presente, pero no parece estar relacionado con el cuento. -Información insuficiente y confusa. -Pobre desarrollo de la tarea. Listado. <p>Registro lingüístico utilizado</p> <ul style="list-style-type: none"> -Uso de un discurso coloquial o inadecuado. -Uso de expresiones de la lengua oral. <p>Mantenimiento de la persona verbal</p> <ul style="list-style-type: none"> -Existencia de distintas personas narrativas que hacen confuso el texto. 	<p>Objetivo del texto. Pertinencia con respecto al tema</p> <ul style="list-style-type: none"> -El texto es un CUENTO FANTÁSTICO y hay un título, aunque no de mucha información sobre el tema. -No es un mero listado de hechos. -Información suficiente y, en general, sobre la historia inventada que se intenta contar. <p>Registro lingüístico utilizado</p> <ul style="list-style-type: none"> -Utiliza el registro adecuado. -Uso de un discurso relativamente formal propio de la lengua escrita. -No hay vulgarismos. <p>Mantenimiento de la persona verbal</p> <ul style="list-style-type: none"> -No hay cambios injustificados en la persona narrativa (normalmente 1ª persona, también 3ª si menciona datos personales) 	<p>Objetivo del texto. Pertinencia con respecto al tema</p> <ul style="list-style-type: none"> -El texto es un CUENTO FANTÁSTICO y hay un título relacionado con el tema. -Responde a algunas de estas preguntas: qué, quién, cuándo, dónde, por qué. -Responde a la situación comunicativa planteada. -Sigue los puntos de orientación dados y la extensión del texto se ajusta a lo que se le pide. <p>Registro lingüístico utilizado</p> <ul style="list-style-type: none"> -En general, uso de un discurso formal propio de la lengua escrita. -No hay vulgarismos, ni expresiones de la lengua oral. <p>Mantenimiento de la persona verbal</p> <ul style="list-style-type: none"> -No hay cambios injustificados en la persona narrativa (normalmente 1ª persona, también 3ª si menciona datos personales) 	<p>Objetivo del texto. Pertinencia con respecto al tema</p> <ul style="list-style-type: none"> -El texto es un CUENTO FANTÁSTICO y el título es creativo, llama la atención y está relacionado con el cuento. -Aparece mucha información. -El tema está muy bien desarrollado y aparecen datos inventados respecto al lugar, situación, personas... -Responde a la mayoría de las preguntas: qué, quién, cuándo, dónde, por qué. <p>Registro lingüístico utilizado</p> <ul style="list-style-type: none"> -Uso de un discurso suficientemente formal propio de la lengua escrita. -No hay vulgarismos, ni expresiones de la lengua oral. <p>Mantenimiento de la persona verbal</p> <ul style="list-style-type: none"> -No hay cambios injustificados en la persona narrativa (normalmente 1ª persona, también 3ª si menciona datos personales)
COHERENCIA Y COHESIÓN TEXTUAL COMPETENCIA DISCURSIVA		<p>Progreso y coherencia de la información</p> <ul style="list-style-type: none"> -No hay estructura en el texto. -La información está desordenada y el texto resulta incoherente. -El texto es incompleto y la ausencia de información dificulta su comprensión. -Hay repeticiones y la información no progresa. -El cuento no progresa, se observan saltos u omisiones injustificadas entre las oraciones. <p>Estructura del cuento</p> <ul style="list-style-type: none"> -El cuento podría tener inicio, desarrollo y desenlace, pero no son claros o carece de uno de los componentes. -El texto no tiene ningún tipo de estructura. -Falta de claridad en la exposición de ideas, lo cual impide la comprensión. -Las ideas están ordenadas al azar. -No hay conexión entre los elementos de la producción. <p>Uso de organizadores textuales</p> <ul style="list-style-type: none"> -No usa o lo hace de manera incorrecta. 	<p>Progreso y coherencia de la información</p> <ul style="list-style-type: none"> -La información no está bien ordenada. -No hay estructura en el texto, no hay sentido global del mismo. -La información a veces es repetitiva o incoherente. -La información no progresa a lo largo de todo el texto. -Se puede apreciar progresión en el tema, pero se observan saltos entre las oraciones. <p>Estructura del cuento</p> <ul style="list-style-type: none"> -El cuento tiene inicio, desarrollo y desenlace, pero no son del todo claros y llega a desviarse del tema en algunas ocasiones. -Se aprecia con dificultad el tipo de estructura textual. -No se aprecian distribución de ideas o partes del texto en la descripción. <p>Uso de organizadores textuales</p> <ul style="list-style-type: none"> -No se usan. -Las oraciones no están enlazadas. 	<p>Progreso y coherencia de la información</p> <ul style="list-style-type: none"> -En general la información progresa a lo largo de todo el texto lo cual hace que el cuento parezca organizado. -El cuento está estructurado y se aprecia cierto sentido global. -La información progresa suficientemente. -No hay repeticiones, ni incoherencias en la información. -El cuento presenta progresión temática y las oraciones están bien construidas. -Da información pertinente, sin datos irrelevantes. <p>Estructura del cuento</p> <ul style="list-style-type: none"> -El cuento tiene inicio, desarrollo y desenlace; elementos que son abordados con claridad la mayor parte del tiempo. -No se desvía del tema. -El cuento está bastante organizado. -Las ideas o partes del texto no se mezclan. Pudiera ocurrir que las transiciones de ideas no sean claras en más de una ocasión. <p>Uso de organizadores textuales</p> <ul style="list-style-type: none"> -Uso de algún organizador. -La mayoría de las oraciones está bien enlazadas, aunque presenta algún fallo en el uso de conectores. 	<p>Progreso y coherencia de la información</p> <ul style="list-style-type: none"> -La información progresa suficientemente. -No hay repeticiones, ni incoherencias en la información. -El texto está bien estructurado, con sentido global. El texto se percibe como una unidad. -Buena progresión temática, las oraciones están bien construidas. -Da información pertinente, ausencia total de datos irrelevantes. <p>Estructura del cuento</p> <ul style="list-style-type: none"> -El cuento tiene inicio, desarrollo y desenlace; elementos que son abordados con claridad. Todo el cuento aborda con claridad las partes en las que se desarrolla y la situación está clarísimamente definida. -El cuento está bien organizado. -Las ideas o partes del texto aparecen diferenciadas en párrafos. <p>Uso de organizadores textuales</p> <ul style="list-style-type: none"> -Se utiliza algún organizador textual o conector. -Las oraciones está bien enlazadas: uso correcto de conectores. -Inicio (<i>Erase una vez...</i>) y final (<i>Al final...</i>) 	<p>Progreso y coherencia de la información</p> <ul style="list-style-type: none"> -No hay repeticiones, ni incoherencias en la información -El texto se percibe como una unidad. <p>Estructura del cuento</p> <ul style="list-style-type: none"> -El cuento tiene inicio, desarrollo y desenlace. -Además se aprecia una pequeña conclusión. -El cuento está muy bien organizado y una idea sigue a la otra en una secuencia lógica. -Las ideas o partes del texto aparecen claramente diferenciadas en párrafos. <p>Uso de organizadores textuales</p> <ul style="list-style-type: none"> -Se utilizan organizadores textuales. -Las oraciones está bien enlazadas: uso correcto de conectores y conjunciones. -Inicio (<i>Erase una vez, cuando era pequeño-a...</i>) y final (<i>Para terminar, por último...</i>)
CORRECCIÓN LÉXICA, MORFOSINTÁCTICA Y ORTOGRÁFICA COMPETENCIA LINGÜÍSTICA		<p>Morfosintaxis</p> <ul style="list-style-type: none"> -Hay errores en la construcción de las frases que dificultan la comprensión del texto. -No termina las oraciones. -Usa oraciones muy simples. -Une palabras. <p>Léxico</p> <ul style="list-style-type: none"> -Se evidencia una falta considerable de léxico. -Excesivas repeticiones. <p>Ortografía y puntuación</p> <ul style="list-style-type: none"> -Existen todo tipo de faltas de ortografía lo que dificulta claramente la comprensión. -No utiliza las mayúsculas. -No usa los signos de puntuación o lo hace de manera incorrecta. 	<p>Morfosintaxis</p> <ul style="list-style-type: none"> -Aparecen incorrecciones gramaticales que en ocasiones dificultan la comprensión del texto. -En alguna ocasión no termina las oraciones. -Usa oraciones muy simples. <p>Léxico</p> <ul style="list-style-type: none"> -Se evidencia una falta clara de léxico. -Muchas repeticiones. <p>Ortografía y puntuación</p> <ul style="list-style-type: none"> -Los errores ortográficos a veces dificultan la comprensión del texto. -Existen faltas de ortografía básica en palabras de uso común. -Utiliza alguna mayúscula, pero no de forma adecuada. -Omite alguno de los puntos al separar oraciones. 	<p>Morfosintaxis</p> <ul style="list-style-type: none"> -En general, no existen casi errores gramaticales que dificulten la comprensión del texto. -Las frases están bastante bien construidas (orden, componentes...) -Aparece alguna oración coordinada. <p>Léxico</p> <ul style="list-style-type: none"> -El léxico es adecuado. -No hay muchas repeticiones de palabras. <p>Ortografía y puntuación</p> <ul style="list-style-type: none"> -No existen faltas de ortografía básicas que dificulten la comprensión del texto. -Usa generalmente las mayúsculas. -Utiliza el punto de manera adecuada la mayoría de las veces. 	<p>Morfosintaxis</p> <ul style="list-style-type: none"> -Utiliza adecuadamente aspectos morfológicos de género y número, así como los tiempos verbales. -Uso de diferentes tipos de oraciones. -No suele cometer errores en las construcciones de las oraciones. -Termina adecuadamente las oraciones. -Las oraciones coordinadas son bastante comunes. <p>Léxico</p> <ul style="list-style-type: none"> -El léxico es ajustado (sin vulgarismos ni incorrecciones léxicas). <p>Ortografía y puntuación</p> <ul style="list-style-type: none"> -No aparecen faltas de ortografía graves (ortografía natural). -Utiliza correctamente las mayúsculas. -Aplica adecuadamente los puntos a lo largo de todo el cuento. 	<p>Morfosintaxis:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Utiliza adecuadamente aspectos morfológicos de género y número, así como los tiempos verbales. -Uso de diferentes tipos de oraciones. -No hay errores en las construcciones de las frases. -Termina siempre las oraciones. -Las oraciones son principalmente coordinadas. <p>Léxico:</p> <ul style="list-style-type: none"> -El léxico es ajustado y variado. -Podría aparecer algún sinónimo para evitar repeticiones. <p>Ortografía y puntuación:</p> <ul style="list-style-type: none"> -No aparecen faltas de ortografía (ortografía natural). -Uso correcto de las mayúsculas. -Aplica correctamente el uso de los puntos a lo largo del cuento.

Texto que tenga 10 palabras o menos.
Texto sin sentido, o tan pobre que no permite valorar los criterios y no llega al nivel 1.



Lehen Hezkuntzako 3. mailako barne ebaluazioa

IDAZMEN PROBA ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK

Irizpideen deskribapen orokorra.

Idazmenaren ebaluazio irizpideak ondorengo multzoetan antolatu dira:

- Gaitasun soziolinguistikoa edo egokitzapena.
- Gaitasun diskurtsiboa, edo koherentzia eta kohesioa.
- Gaitasun linguistikoa, lexikoari, gramatikari eta ortografiari dagokiena.

1. Gaitasun soziolinguistikoa edo egokitzapena.

Egokitasuna testua planteatutako komunikazio egoerara eta testuinguru diskurtsiboari egokitzeko gaitasuna da. Testuak, garatzen den komunikazio egoera horren ezaugarriak islatzen ditu: komunikazio asmoa, solaskideen jarrera, ekoizpen eta harrera kanala, etab. Gainera, erabilitako erregistroaren hizkuntza ezaugarriak zehazten ditu eta testua ezarritako komunikazio egoeran gaiari egokitasunez lotzen zaion adierazten du.

Ondorengo hauek dira gaitasun soziolinguistikoaren adierazleak:

- **Testuaren helburua:** lanean proposatutakoa errespetatzen den ala ez (kontaketa, deskribatzea, azaltzea, argudiatzea...) eta emandako agindua betetzen den ikustea (narrazio, albiste, gutun edo errezeta bat idaztea).
- **Gaiarekiko lotura:** idatzitako informazioa emandako komunikazio egoerarako esanguratsua den eta modua dagokion generorako egokia den (albiste baten ikuspegi objektiboa, etab.).
- **Hizkuntza erregistroa:** erabilitako hizkuntza erregistroa (formala, ez-formala...) ondo egokitzen zaion lanari.
- **Beste zenbait adierazle, testu-generoari dagozkionak eta aproposa den kasuetan ebaluatzen direnak:** objektibotasuna gaia garatzean, aditzaren pertsonari eustea...

2. Gaitasun diskurtsiboa: koherentzia eta kohesioa.

Koherentzia testua zentzuzko unitate gisa antolatzeko gaitasuna da. Informazioaren aukeraketa eta horren garapena, eta landutako generoari dagokion egituraren antolatuta dagoen izango da kontuan.

Kohesioak testuko informazioaren arteko loturak bideratzen dituzten hizkuntza mekanismoak biltzen ditu. Mekanismo horiek bi motatakoak dira: gramatikalak (edo morfosintaktikoak) eta lexikoak.

Ondorengo hauek dira gaitasun diskurtsiboaren adierazleak:

- Informazioaren garapena eta koherentzia:** informazioa modu esanguratsuan aukeratzen den, eta informazio hori, besteak beste, kontraesanik edo alferrikako errepikapenik gabe garatzen den. Eta ideiak eta datuak modu logikoan garatzen diren.
- Testu egitura:** eskatutako testuaren egitura errespetatu behar da, narrazioa, azalpena edo dena delakoa izanda.
- Kohesio mekanismoak:** ondo lotutako testua lantzeko beharrezko lokailuak edo testu antolatzaileak azaltzen diren, erreferentea galdu gabe eta gaiaren garapena ziurtatuz.

3. Gaitasun linguistikoa: gramatika, lexikoa eta ortografia.

Gaitasun honen bidez testua hizkuntza arauetara egokitzen den egiaztatzen da. Arau ortografikoak eta morfosintaktikoak eta lexikoa egoki erabiltzea eskatzen da.

Ondorengo hauek dira gaitasun linguistikoaren adierazleak:

- Gramatika:** egitura morfosintaktiko zuzenak eta askotarikoak erabiltzen diren.
- Lexikoa:** erabiltzen den lexikoa eskatutako gaiari ondo egokitzen zaion.
- Ortografia:** oinarrizko ortografia arauak errespetatzen diren.

HIZKUNTZA ORIENTABIDEAK. LEXIKOA, GRAMATIKA, ORTOGRAFIA ETA PUNTUAZIOA

Maila honetan, ikaslea ingelesezko idazmenaren hasierako fasean dago. Era berean, euskara eta gaztelaniazko irakurmen eta idazmen mekanismoak finkatzen ari da, eta hizkuntza hauetan grafiaren eta fonemaren arteko lotura eta ingelesarena ezberdinak izanik. Ondorioz, erdi-mailako ekoizpenek, ahalegin txiki bat eska lezakete ulertzeko, sintaxi eta ortografia mailakoak izan litezkeen akatsengatik, zein oraindik finkatzen ari den kaligrafiagatik.

Ondoren, **erdi-maila bereizten duten arazorik garrantzitsuenak** azaltzen dira.

Lexikoa

-Ikasleak ohiko erabilerako hitzei lotutako oso oinarritzko hiztegia erabiliko du, hala nola, kolore, tamain, gorputz atal, jantzi, elikagai, gustatzen zaizkion eta ez zaizkion gauzenak..., eta lana egiteko eskaintzen zaizkion ereduaz edo adibideez baliatuz.

Gramatika

-**Emandako eredu batean informazioa ordezkatzan dutenean**, ikasleak dagokion aditz pertsona erabili eta mantenduko du, eta baita ereduko egiturak ere.

-**Eredurik ez dagoenean**, akats sintaktikoekin idatzitako esaldiak onartuko dira, baldin eta ulermena gehiegi oztopatzen ez badute.

Ulermena oztopatzen ez duten akatsen adibideak

- Subjektua ahaztea: *is big*.
- Artikulua ahaztea: *it is boy*.
- Singularreko hirugarren pertsonan s-a ahaztea: *he like*

Ulermena oztopatzen duten akatsen adibideak

- Aditza ahaztea: *I football*.
- *to have* eta *to be* aditzak nahastea: *I have big*.
- Zaila da esanahia interpretatzea: *I don't like angry*.

Ortografia

-Ikasleek maiuskula erabiliko dute izen propioetarako, testuaren hasieran, esaldiaren hasieran eta puntuaren ondoren.

-Eredu bat dagoenean, eredu hori zuzentasunez kopiatuko dute.

-Beste hizkuntza batzuen fonetika erreproduzitzen idatzi ahal izango dute: *head* beharrean *hed*, *green* beharrean *gren/grin*, *white* beharrean *wait*, *girl* beharrean *geld*. Ondorengo kasuetan, oztopatu egiten da ulermena: *head* beharrean *jez*, *tail* beharrean *tile*, *meat* beharrean *mite*.

Puntuazioa

-Ikasleek paragrafo eta esaldi amaierako puntua erabiliko dute.

-Galdera eta harridura ikurrak erabiliko dituzte, beharrezkoak direnean.

-Zerrendaketetan koma erabiliko dute.

GARRANTZITSUA: Oro har, testuak 20 edo 25 hitz inguru izatea komeni da. **5 eta 8 hitz** bitarteko testu zuzenak, **asko jota**, **erdi-mailan** egongo dira atal honetan.

IDAZMEN PROBAREN EMAITZAK ERREGISTRATZEKO TXANTILOIA

IKASLEA: _____

DATA: _____

ADIERAZLEAK	0	1	2	3	4	5
1. TESTUAREN EGOKITASUNA (GAITASUN SOZIOLINGUISTIKOA)						
- Testuaren helburua. Gaiarekiko lotura. - Erabilitako hizkuntza erregistroa. - Beste adierazle batzuk.						
2. TESTUAREN KOHERENTZIA ETA KOHESIOA (GAITASUN DISKURTSIBOA)						
- Informazioaren garapena eta antolaketa - Deskribapenaren egitura						
3. LEXIKOA, GRAMATIKA, ORTOGRAFIA ETA PUNTUAZIOA (GAITASUN LINGUISTIKOA)						
- Morfosintaxia. - Lexikoa. - Ortografia eta puntuazioa.						
	HASIERAKO MAILA			ERDI-MAILA	MAILA AURRERATUA	

ONDOREN EREDUZKO PROBAREN ADIBIDEA AURKEZTEN DA

DESKRIBAPENA HORSES & PENGUINS

L3NI0063

Read some facts about horses.

HORSES



Horses have **four legs**.

They can be **white, brown or black**.

They are **big and strong**.

They eat **grass**.

They can be **domestic**.

Now write about these animals.



PENGUINS

Penguins have _____.

They are _____.

They are _____.

They eat _____.

They live in _____.

ANIMALIEN DESKRIBAPENA

	0	1	2	3	4	5
KOMUNIKAZIO EGOERARA EGOKITzea (Gaitasun linguistikoa)		Ez da helburua lortzen: ez da ikusten deskribapen baten elementuak ereduari jarraituz ordezkatu dituenik. Garrantzitsua: hainbatetan irakurri arren, testua ez da ulertzen. Ez da eskatutako informazioa azaltzen.	Oso modu eskasean lortzen da testuaren helburua: ahalegina egin behar da deskribapen baten elementuak ereduari jarraituz ordezkatu dituela ikusteko. Garrantzitsua: hainbatetan irakurri behar da testua partzialki ulertu ahal izateko. Ondoren alderdi hauetako batzuen inguruan partzialki idazten du: -Hanka kopurua -Kolorea -Tamaina -Elikadura -Non bizi diren	Testuaren helburua lortzen da: oro har, deskribapen baten elementuak ereduari jarraituz ordezkatu dituela ikusten da. Garrantzitsua: beharrezkoa izan daiteke ahalegin txiki bat egitea testua ulertzeko. Oro har, badago eskatutako informazioa (asko jota gai hauetako bi falta ahal dira, gainerakoei buruzko informazioa arina bada): -Hanka kopurua -Kolorea -Tamaina -Elikadura -Non bizi diren	Testuaren helburua lortzen da: ereduko arauari jarraituz deskribapen baten elementuak ordezkatzeko. Garrantzitsua: testua behin irakurrita ulertzen da. Eskatutako informazioa azaltzen da. -Hanka kopurua -Kolorea -Tamaina -Elikadura -Non bizi diren	Erabat lortzen da helburua: ereduko arauari jarraituz deskribapen baten elementuak ordezkatzeko. Garrantzitsua: testua behin irakurrita erraz ulertzen da. Argi eta garbi agertzen da eskatutako informazioa eta bestelako informazioa barne har lezake: -Hanka kopurua -Kolorea -Tamaina -Elikadura -Non bizi diren
KOHERENTZIA ETA KOHESIOA (Gaitasun diskurtsiboa)		Ez da errespetatzen deskribapen baten egitura . Informazioaren garapena eta antolaketa: -Ideiak ez daude logikoki antolatuta: oso nahastuta daude eta ez dira koherenteak. -Testuaren erdia baino gehiago beste hizkuntza batean ager daiteke. -Testuaren erdia baino gehiago testutik hitzez hitz kopiatuta egon daiteke eta ez da koherentea testuinguruarekiko.	Partzialki errespetatzen du ereduko deskribapenaren egitura . Informazioaren garapena eta antolaketa: -Ideiak ez daude logikoki antolatuta: oso nahastuta daude eta koherenteak ez diren hainbat datu daude. -Testuko esaldi batzuk beste hizkuntza batean ager daitezke. -Testuko esaldi batzuk testutik hitzez hitz kopiatuta egon daitezke eta ez dira koherenteak testuinguruarekiko.	Oro har, ereduko deskribapenaren egitura errespetatzen da. Gaika multzokatzen du informazioa. Informazioaren garapena eta antolaketa: -Ideiak logikoki antolatuta daude: -ereduko paragrafoen ordena errespetatzen du edo, bestela, puntuez lotutako esaldietan banatzen du informazioa. -informazioa lotzeko lokailua erabil lezake (<i>and, but, ...</i>) -Ereduko informazioa datu egokiez ordezkatzeko du eta gehienak koherenteak dira testuinguruarekiko (kopiatutako edo koherentea ez den daturen bat egon daiteke)	Ereduko deskribapenaren egitura errespetatzen da. Gaika multzokatzen du informazioa. Informazioaren garapena eta antolaketa: -Ideiak logikaz eta modu antolatuan azaltzen dira: -ereduko paragrafoen ordena errespetatzen du edo, bestela, puntuez lotutako esaldietan banatzen du informazioa. -Eta informazioa lotzeko gutxienez lokailua bat erabiltzen du (<i>and, but, ...</i>) -Ereduko informazioa datu egokiez eta testuinguruarekin koherenteak direnez ordezkatzeko du.	Ereduko deskribapenaren egitura errespetatzen da. Gaika multzokatzen du informazioa. Informazioaren garapena eta antolaketa: -Ideiak logikaz eta modu antolatuan azaltzen dira: -paragrafoka antolatzen ditu ideiak. -Eta errepikatu ahal diren lokailuak (<i>and, but, ...</i>) erabiltzen ditu informazioa lotzeko, testuinguruarekiko egokiak direnean. -Ereduko informazioa datu egokiez eta testuinguruarekin koherenteak direnez ordezkatzeko du.
GRAMATIKA, LEXIKOA ORTOGRAFIA ETA PUNTUAZIOA (Gaitasun linguistikoa)	5 hitz edo gutxiagoko testua, zentzurik gabekoa, edo hain eskasa ezen ez duen irizpideak baloraztea ahalbidetzen.	Komunikazioa galarazten duten gramatika eta ortografia akats larri ugari. Proposatutako egoerara egokitzeo lexiko eta gramatikako balibiderik eza nabarmena da.	Komunikazioa oztopatu eta behin eta berriz errepikatzen diren gramatika eta ortografia akats ugari ditu. Lexikoa ez da oso egokia: errepikakorra da. Beste hizkuntza bateko hitzak erabiltzen ditu lexikorik ezagatik.	Testuaren zatirik handienean, gramatika eta ortografia akatsek ez dute komunikazioa oztopatzen. Eredutik kopiatutako hitz gehienak ondo idatzita daude. Proposatutako egoerarako egokia den lexikoa erabiltzen du, baina beste hizkuntza bateko hitzen bat erabil lezake komunikazioa bermatzeko.	Gramatika eta ortografia akatsek ez dute komunikazioa oztopatzen. Eredutik kopiatutako hitzak ondo idatzita daude, pare bat akats egon ahal diren arren. Proposatutako egoerarako lexiko egokia erabiltzen du.	Testua, oro har, zuzena da, baina komunikazioa oztopatzen ez duten gramatika edota ortografia akatsak egon daitezke. Eredutik kopiatutako hitzak ondo idatzita daude. Proposatutako egoerarako lexiko egoki eta aberatsa erabiltzen du.

